

JAUREGI TAR KOLDOBIKA " JAUTARKOL. "

("RENERIA" eta "OARSO" ALDIZKARIETAN lankide).

Xabier

1.896.ko Ekainaren 21-ean jaio zan Errenterian 22-an, bataiatua izanik Luis Ramon izenarekin "Jautarkol" olerkaria. Aurten, beraz, bere jaiotzako mende urrena ospatzen degu. Ori dala ta, bere irudiari buruz dijoakizue nere aurtengo idazlan au.

Bere nortasuna nolakoa izandu zan, ni baiño obeto prestatuak dagozten idazleek esango dutela iruditzen zait. Eta beraientzako uzten ditut, berak merezi duan bezela bere olerki eta idazlanak erriari ezagutu araztea.

Ume nintzala esagutu nuben "Perikoneko apaiza" (Guk esaten genion bezala). Gogoan beti izanik Madalen jaietan nola urbiltzen zan errira, bere zaindaria ospatzera.

Aurrez ezagutu nituan bere idazlan eta olerkiak; bañan bera urteetan aurrera zijoalarik bere anai Esteban eta Modesto lagun izanik. Berauek Mexiko-tik egun batzuek igarotzera beren errira etorri ziran aldi batean, solasalditxo bat edo beste izan nituan berarekin eta orduan ezagutu nuban bere nortasuna eta zenbait añekoa zan Errenteriarri zion maitasuna.

Nere gaurko asmo au da zueri irakurleoi azaltzea gure Jautarkolek "Renteria eta Oarso" aldizkarietan urteetan zear lankide bezela egin zituan lanak. Eta artarako, urte eta aldizkari-izena aurrez diralarik, berak erabilli zituan lanak aipamen berezi bat izan dezaten.



"Jautarkol" "Día de la Poesía Vasca" saria irabazi zuen garaian

1.923. "Renteria".- Urte onetan bere lenengo lana azaltzen da: "Itsas ertzean" izeneko olerkia. Euskal esnaleko sariketan lenengo sariz saritutakoa: "Illunabarra...Eguzkia iya illean itsasoai musuka, Aitzak itsas ertzean aztinduntzen orruka, auek bere olerkiaren leen itzak izanik.

1.924. "Renteria".- "Sobre el progreso renteriano"; idazlan au erderaz egiten du, erriaren aurrerapenak berarentzat ekartzen dituan goraberak sakonki astertuz.

Urte onetan, aldizkari berean "Oroigaiak" (Errenderiko nere lagun zarrei), bere aurtzaroko egunak oroiturik, orduko jolas eta ibillerak autatuaz, bere izaerari gozotasun bat ematen dio eritik kanpo arkitzen dalarik.

1.925. "Renteria".- "La enseñanza obligatoria y el analfabetismo" Erderazko lan onetan, irakaste bearrezko eta ez jakiñaren arazoak sakontzen ditu.

Aldizkari berean, "Zergaitik" olerkia azaltzen da. Onela dira bere leen itzak: "Bere ezpañetan Jaunak jarri zun marrubi mardul mardularen gorria, t'algara alai ta iribar gozo beti zorion iturri bizi bizia.

1.926. "Renteria".- "Poz agurra". Biozkadak eta Oda a Renteria, au erderaz, dira urte ontakoak. "Poz agurra" bere amari, "Biozkadak" urte artan argitaratu zan liburuaren izena eta "Oda a Renteria" bere erriko edestiari egiten dion goralmena.

1.926. "Renteria".- "Al Santo Cristo de Lezo". Gure auzoko dan errian dagoen Kristori egiten dio olerki elizkoi eta goi maitasunez betea.

1.927. "Renteria".- "Un gran problema Renteriano". Urte artan Madrileko jaurlaritzak erabaki bat azaldu zuan euskerari buruz eta erabaki onek garrantzi asko zeukala errenteriarientzat bizi erasten ditu bere erritarrak euskeraren alboan lan egiteko.

1.928. "Renteria".- Bere Biozkadak liburutik "Amonatxoa eskean eta Nekazari Gaixoa" izeneko olerkiak dituzue urte ontan. Baita, eta au erderaz, "A la memoria del historiador renteriano Dn. Juan Ignacio de Gamon Pbro." olerki bat eskeintzen du. Gogoan arturik Karmelo Etxegaraik beragaitik esan zuana: "Gamon es digno de que no lo olviden los Renterianos". Bertan jaun oneri oore egiten dio, Errenderiko kondairaren alde ainbat asterketa egin zitualako.

1.929. "Renteria".- Sacerdote y Maestro izenarekin, Dn. Pedro Indabereari buruz idazlana eskeintzen dio, azaldirik bere bizitzaren zati batzuek apaiz eta irakasle bezela.

Aldizkari berean, "La procesión de Santa María Magdalena" erdel olerkia sakon eta erri maitasunez betea. Onelakoak dira bere leen itzak: "Ya la sacan de su ermita ya los fornidos gizonos y en sus hombros triunfalmente la pasean entre sonos". Eta amaitzen du: "Pueblo mio no la olvides entre el bullicio profano, al divertirtte recuerda que tu patrona en la mano, tiene la cruz en la que cifra su valiosa protección".

Eta irugarren lan bat azaltzen da urte onetan, "Errenteri nere jaioterriari" egindako olerkia. Benetan, bere erriari egin lezaiokeen maitale beten agurrik samurrena. Onela dio bere asierako leen zatiak "Errenteria nere aurtzaro zorioneko seaska kutun beroa, nere barrendik biotza igeska gaur zuregana pozez urturik dijoa". Itz gozo eta maitatiak benetan.

1.930. "Renteria".- "Legortea eta Saadiko arrosak" izeneko olerkiak dira urte ontan argitaratzen dituenak. Batean baserritarrak legortearekin dituzten arazoak beren ikuspegitik begiratuta eta bestea samur eta maitekorra arrosak gai arturik.

1.943. "Renteria".- "Nuestra patrona la gran santa del nuevo testamento". Eleiz itzaldi bat dirudi, gure zaindariaren bizitzan zear izandako xeetasunak ain zuzen azaldurik. Eta zenbait aiñakoa izandu zan Kristonganako maitasuna, gure zaindariak izan zuena; sermoi batean erabiltzeko gaia goresmen samurrez bete.

1.945. "Renteria".- "Barren izketa eta Maitasun kondairatxoa" izeneko olerkiak aurtengo auk. Bizitzaren oldosgarri mamitsua darama lenengoak: "Ez jua ene biotza baratzera, alako loretxoa usaitzera, pozoidun intza dauka ta ilko zera, eta besteak". Zure maitasun kondairatxoa agertu didazu, nolaz gaur arte barruan lertzen, Mari euki dezu, biak maitasun ondoan dabiltzanak.

1.958. "Oarso".- Ezin lezake gure Jauntarkolek ain maite izan zuben Xenpelarri buruz zerbait ageri gabe egon eta lenengo aldiz "Oarso" aldizkarirako egin zuan lana berari buruz egin zuan. Idazlan bat erderaz eta olerki bat euskeraz.

Bietan Xenpelaren nortasuna, bertsolari bezela eta euskera zarraren kimu sendotsua bezela goralmen batean azaltzen ditu.

1.961. "Oarso".- Berrio 1.929,an argitaratu zunaren antzeko olerkia (au euskeraz): "Zaindari Madalen Doatsua" (Urteroko prozezioa 1.961). Onek onela dio asieran: "Gizon lerdan ta indartsuak ermitatik aterata daramate bizkarrean, soñu ta otoitzak alaitasuna, Errenteriar biotzean"; beste elizkoi itz auekin amaituaz: "Gure Jaunaren aurrean zaitugu zaindari maite gure bitarteko altsu... Lagundu arren izan gaitezen Jesusen maitale sutsu". Ikusten dezute gure olerkariaren erritar maitetasuna zenbait aiñekoa zan bere zaindariarenganako.

1.962. "Oarso".- Eta au izandu zan bere azkeneko lana aldizkari onetako. "JAUNGOIKO TXIKI" izenarekin azaldu zana. Izen goiti ontako errenteriar baten bizi labur bat azaltzen du; mentura zale, baita ere borrokarako prest egoten zana ere, errian eta eritik zear (Afrikan ere) bere ibillaldiak oso sonatuak izandu ziran, errian beintzat bertako biztanle asko beragaitik bildur galantak pasa izanik.

Eta auk izandu dira "Renteria eta Oarso" aldizkarietan urteetan zear Jaurtakolek utzi zizkigun bere ezaugaiak. Beraren oorez, asmo onenarekin azaldu dizkizuet erritar gutioiri zerbaiten balioa izango duten asmoz. Era berean, ez nuke utzi nai nere esker diraden beroenak eman gabe Juan Miguel Lakuntzari, bere "Aldizkariaren Aurkibidearen" bidez lortu al izandu ditutelako emen azaldu diraden xeetasun guztiak.

Erri maitale apaiza eta olerkaria
doai bereziz jantzia
Erritik kanpo igaro zendun apaiz bizitzan
zure izate guztia
Baiñan beiñere ez zuban aztu zure biotzak
jaio ziñaden erria
Ainbat alditan olerkietan goratzarretuz
zure maite Errenteria.

1.996-4-30



"Jautarkol" familiko eskontza batean. 50 urte inguruan